

Xedapen Orokorrak

GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

5293

144/2007 DEKRETUA, irailaren 11koa, Garraio eta Herri Lan Saileko Berariazko Organo Estatistikoa sortu eta bere antolaera eta funtzionamendua ezartzen dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeko 26. artikulua xedatzen duenez, baldin eta Jaurlaritzako sailek lehendik eratuta badute berariazko organo estatistikoa, EAEko Estatistikari dagokion jardura aipatu legean ezarritako moduan garatuko dute, ondorioz EAEko Antolaera Estatistikoaren partaide bihurtuz. Lege testu horretako 27. artikuluan xedatzen da, baita ere, berariazko organo estatistikoa norbere araudiari jarraiki erregulatuko direla.

Jaurlaritzako sailen organo estatistikoa arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuak lege horretan jasotako aurreikuspenak garatzen ditu, hala sailetako organo estatistikoa sortzeari eta antolatzeari nola horren jardunari dagokienez.

180/1993 Dekretuko lehenengo xedapen gehigarriak ezartzen du eze, Jaurlaritzako sailek euren estatistikak eta jarduerak norberarenak bailiran burutu ahal izateko Estatistikaren EAEko Planean edo Urteko Programa Estatistikoetan, nahitaezkoa izango dela horiek Berariazko Organo Estatistiko propioa izata.

Arlo estatistikoan sortutako premiek, zeintzuk Garraio eta Herri Lan Sailaren jardura-arloa osatzen duten sektoreei buruzkoak diren, sailaren antolaketa-egituraren txertatutako organoa sortzea beharrezkotzat jotzen dute. Organo horren harremanak eta funtzionamendua estatistikaren arloko legeak arautu, babestu eta mugatuko dute, batik bat sekretu estatistikoari dagokionez.

Horiek horrela, Garraio eta Herri Lan sailburuaren proposamenez, Euskal Estatistika Batzordeak txostena eman eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko irailaren 11n egindako bileran aztertu eta onartu ondoren,

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

5293

DECRETO 144/2007, de 11 de septiembre, por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Transportes y Obras Públicas y se establece su organización y funcionamiento.

La Ley 4/1986, de 23 de abril de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dispone en su artículo 26 que aquellos Departamentos del Gobierno que tuvieran constituido en su seno un órgano estadístico específico llevarán a cabo, en los términos previstos en dicha Ley, la actuación referente a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, conformándose de esta manera en una parte integrante de la Organización Estadística de la Comunidad Autónoma. A su vez, el artículo 27 del mismo Texto Legal remite la regulación de los órganos estadísticos específicos a su normativa propia.

El Decreto 180/1993, de 22 de junio por el que se regulan los Órganos Estadísticos de los Departamentos del Gobierno, desarrolla las previsiones contempladas en la precitada Ley en cuanto a la creación, organización y funcionamiento de dichos órganos estadísticos departamentales.

La Disposición Adicional Primera del Decreto 180/1993 establece, además, que para que los Departamentos del Gobierno puedan realizar las estadísticas y actuaciones incluidas como propias de ellos en el Plan Vasco de Estadística o en los Programas Estadísticos Anuales, será requisito indispensable que los mismos dispongan del correspondiente Órgano Estadístico Específico.

Las necesidades generadas en el orden estadístico, referidas a los sectores que constituyen el área de actuación del Departamento de Transportes y Obras Públicas, aconsejan y hacen necesaria la creación de un órgano integrado en su estructura organizativa, cuyas relaciones y funcionamiento esté regulado, protegido y limitado por la legislación estadística, especialmente en lo referido al secreto estadístico.

En su virtud a propuesta de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, previo informe de la Euskal Estatistika Batzordea / Comisión Vasca de Estadística, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día de 11 de septiembre de 2007,

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Helburua.

Dekretu honen bidez Garraio eta Herri Lan Saileko Berariazko Organo Estatistikoa sortu eta bere antolara eta funtzionamendua ezartzen dira, Jaurlaritzako sailen organo estatistikoak arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuko aginduen arabera.

2. artikulua.— Mendekotasun organikoa.

Garraio eta Herri Lan Saileko Berariazko Organo Estatistikoa pertsona bakarreko organoa da, zeinak Saileko Zerbitzu zuzendariaren mendekotasun zuzena baitu.

3. artikulua.— Eskumenak.

1.— Garraio eta Herri Lan Saileko Berariazko Organo Estatistikoa I motako organo modura eratzen da eskumen ondorioetarako. Hori dela-eta, mota horretako Berariazko Organo Estatistikoei buruzko 180/1993 Dekretuak esleitzen dizkien eskumenez eta ahalmenez baliatuko da. Batik bat, honako hauez:

a) Sailaren Estatistika Plana gertatzea, zeina Estatistikaren Euskal Planaren Proiektuaren oinarria izango den.

b) Euskal Estatistika Erakundearekin batera lan egi-tea Estatistikaren Euskal Plana eta Urteko Programa Estatistikoak gertatzen.

c) Urteko Programa Estatistikoetan txertatutako estatistikak edo estatistika-faseak gertatzea, programotan zehaztutako moduan.

d) Estatistikaren Euskal Planean edo Urteko Estatistika Programetan txertatu gabeko estatistika propioak gertatzea, 4/1986 Legeko 8.1. artikuluan ezarritako eran.

e) Artikulu honetako c) eta d) idatz-zatietan jasotako eginkizun estatistikoak direla-eta beste erakunde batzuekin dituen harremanak, betiere 4/1986 Legearen 29. artikuluko c) eta d) idatz-zatietan ezarritako guztia betez.

f) Bere eskumenpeko estatistikak gauzatzeko informazioa lortzea, 4/1986 Legeko 9. eta 16. artikuluetan xedatutako eran.

g) Artikulu honetako d) idatz-zatian adierazitako estatistiken emaitzak eta Urteko Programa Estatistikoe-tan zehaztutakoak argitaratu eta jakitera ematea, edukiaren berri Euskal Estatistika Erakundeari jakinarazi ondoren.

h) Bere arloko fitxategi-direktorio estatistikoak gertatu eta eguneratzen parte hartzea 4/1986 Legearen 29.i) artikuluan xedatutakoaren arabera.

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

Mediante el presente Decreto se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Transportes y Obras Públicas, y se establece su organización y funcionamiento, de conformidad con las prescripciones del Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los Departamentos del Gobierno.

Artículo 2.— Dependencia.

El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Transportes y Obras Públicas es un órgano unipersonal que depende directamente del Director de Servicios de dicho Departamento.

Artículo 3.— Competencias.

1.— El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Transportes y Obras Públicas se configura, a efectos de sus competencias, como de la clase I. En su virtud ostentará las competencias y ejercerá las facultades que a los Órganos Estadísticos Específicos de dicha clase atribuye el Decreto 180/1993 y, en concreto, las siguientes:

a) Elaboración del Plan Estadístico Departamental que sirva de base al Proyecto del Plan Vasco de Estadística.

b) Colaboración con el Euskal Estadistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística en la elaboración del Plan Vasco de Estadística y de los Programas Estadísticos Anuales.

c) Elaboración de aquellas estadísticas, o fases de ellas, incluidas en los Programas Estadísticos Anuales, en los términos que en los mismos se determinen.

d) Elaboración de estadísticas propias, no incluidas en el Plan Vasco de Estadística ni en los Programas Estadísticos Anuales, en los términos previstos en el artículo 8.1 de la Ley 4/1986.

e) Relación con otros organismos como consecuencia de las funciones estadísticas derivadas de los apartados c) y d) de este artículo, observando en todo caso lo establecido en el artículo 29.c) y d) de la Ley 4/1986.

f) Obtención de información para la realización de las estadísticas de su competencia, en los términos expresados en los artículos 9 a 16 de la Ley 4/1986.

g) Publicación y difusión de los resultados de las estadísticas referidas en el apartado d) de este artículo, así como de las que se determinen en los Programas Estadísticos Anuales, previa comunicación de su contenido al Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística.

h) Participación en la elaboración y actualización de los Ficheros Directorios estadísticos de su ámbito sectorial, según lo previsto en el artículo 29.i) de la Ley 4/1986.

i) 180/1993 Dekretuko 7.2 artikuluan ezarritakoa-ren arabera, Garraio eta Herri Lan Sailak interesgarritzat jotako proiektuak burutzea, batik bat sektorekako eta azpisektorekako zerbitzuak, azterlanak eta analisiak.

2.— Garraio eta Herri Lan Saileko Berariazko Organo Estatistikoa bere eskumenez baliatuko da, bai Sail horrek dituen premia estatistikoei dagokienez, bai, Euskal Estatistika Erakundeaz gain, berak atxikita dituen erakundeei dagokienez, betiere kontuan hartuz estatistikak datu estatistikoetatik edo datu administratiboetatik abiatuz gertatu behar direla.

3.— Garraio eta Herri Lan Saileko Berariazko Organo Estatistikoak errespetatu egin beharko ditu estatistikek eragindako arloetan Sail horren mendeko organo eta instantziei legez esleitutako eskumenak. Berariazko Organo Estatistikoak bere eskumenez baliatzeko behar duen informazioa jasoko du organo horietatik.

4. artikulua.— Funtzionamendua.

Garraio eta Herri Lan Saileko Berariazko Organo Estatistikoak, 180/1993 Dekretuko 4. artikuluan jasotako Berariazko Organo Estatistikoaren Erregistroan inskribatu ondoren, EAEko Estatistikaren arloko jardunari ekingo dio —estatistikako legeak betez— beste organo eta enteekin dituen harremanetan, barne hartuz bere Sailari atxikitakoak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Garraio eta Herri Lan sailburuari baimena ematen zaio dekretu hau garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena.

Bigarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko irailaren 11n.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

i) Realización de los proyectos que se consideren de interés por parte del Departamento de Transportes y Obras Públicas, especialmente servicios, estudios y análisis de tipo sectorial y subsectorial, en el marco establecido por el artículo 7.2 del Decreto 180/1993.

2.— El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Transportes y Obras Públicas ejercerá sus competencias tanto respecto a las necesidades estadísticas de dicho Departamento como de los entes institucionales que, al margen del Instituto Vasco de Estadística, el mismo tenga adscritos, y con independencia de que las estadísticas hayan de elaborarse a partir de datos estadísticos o de datos administrativos.

3.— El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Transportes y Obras Públicas respetará las competencias legalmente atribuidas a los órganos e instancias del citado Departamento sobre las materias afectadas por las estadísticas. Estos últimos le suministrarán la información que aquél requiera para el ejercicio de sus competencias.

Artículo 4.— Funcionamiento.

El Órgano Estadístico Específico del Departamento de Transportes y Obras Públicas, una vez inscrito en el Registro de Órganos Estadísticos Específicos previsto en el artículo 4 del Decreto 180/1993, ejercerá su actuación referente a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi actuando con observancia de la legislación estadística, en las relaciones que mantenga con otros órganos y Entes, incluidos los pertenecientes o adscritos a su Departamento.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se faculta a la Consejera de Transportes y Obras Públicas para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de lo establecido en el presente Decreto.

Segunda.— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de septiembre de 2007.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Transportes y Obras Públicas,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.